

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5647

AGINDUA, 2024ko azaroaren 22koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baitira 2024. urterako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Euskadi Sariak.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2024ko irailaren 11ko Aginduaren I. eranskineko 7. artikuluan, II. eranskineko 8. artikuluan eta III. eranskineko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta (2024ko irailaren 25eko EHAA, 187. zk.), agindu horren bidez arautzen baitira Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Euskadi Sarien 2024. urterako deialdiaren oinarriak, eta horretarako izendatutako epaimahaiaren emate-proposamena ezagutu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2024ko ekitaldiari dagozkion Turismoaren Euskadi Sariak honako hauei ematea:

- Turismo-berrikuntzaren Euskadi Saria 10 langilerainoko enpresentzat: Go Local Tours San Sebastián.
- Turismo-berrikuntzaren Euskadi Saria 10 langile baino gehiagoko enpresentzat: Bodegas Herederos del Marqués de Riscal.
- Helmuga arduratsu eta jasagarriaren Euskadi Saria: Albaola Itsas Kultur Faktoria.
- Ibilbide profesionalaren Euskadi Saria: José Antonio Ramos, Bilbao Berria jatetxeko areto-zuzendaria.

Era berean, epaimahaiak, ezohiko izaeraz, 2024ko ekitaldirako aipamen berezi bat ematea erabaki du Donostiako La Viña tabernaren jabe den Santiago Riverari, Euskadi, Gipuzkoa eta Donostia helmuga gastronomiko gisa kokatzeko egin duen ekarpenagatik, haren gazta-tarta ospe-tsua mundu mailako entzutea lortu baitu.

Entitate onuradunek, 2024ko irailaren 11ko Aginduaren I. eranskinaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, aintzatespen publikoa jasoko dute horretarako deitutako ekitaldian.

2. artikulua.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2024ko ekitaldiari dagozkion Merkataritzaren Euskadi Sariak honako hauei ematea:

- Ibilbide profesionalaren Euskadi Merkataritza Saria: Minimil.
- Merkataritza-enpresentzako Euskadi Sariak:
 - 1.– 10 langilerainoko merkataritza-enpresentzako Euskadi Saria: Choc Arte Coop.
 - 2.– 10 langile baino gehiagoko merkataritza-enpresentzako Euskadi Saria: Carnicería Elvira.
- Ekintzaitzaren Euskadi Saria: Floristería Arantza.
- Merkataritza-eremuak Dinamizatzeko Euskadi Saria: ABK Asociación Barakaldo.

Entitate onuradunek, 2024ko irailaren 11ko Aginduaren II. eranskinaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, aintzatespen publikoa jasoko dute horretarako deitutako ekitaldian.

3. artikulua.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2024ko ekitaldiari dagozkion Kontsumoko Euskadi Sariak honako hauei ematea:

- Kontsumoko Euskadi Saria 1. kategorian: Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna-EHKB.
- Kontsumoko Euskadi Saria, 2. kategorian: Goiener S. Koop.
- Kontsumoko Euskadi Saria, 3. kategorian: Nerbioi Irratia ¡Vaya Domingo!

Entitate onuradunek, 2024ko irailaren 11ko Aginduaren III. eranskinaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, aintzatespen publikoa jasoko dute horretarako deitutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze-errekurtsoa jar dakioket Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 22a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.